

EUSKAL AEKO ZERBITZUEN KOIUNTURAKO INDIZEA (ZKI) 2013ko 1. hiruhilekoa


Euskal AEko zerbitzuen sektorearen salmenta-indizea %3,8 jaitsi zen 2013ko lehen hiruhilekoan

Merkataritza %3,4 jaitsi zen eta beste zerbitzuena %6,7

Eustatek emandako datuen arabera, 2013ko lehen hiruhilekoan, Euskal AEko zerbitzuen sektoreko salmenta-indizea %3,8 nominala murriztu zen, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

Aurreko hiruhilekoaren aldean salmenta-indizea %0,5 nominala murriztu da, urtaro-eraginak kenduta.

Euskal AEko zerbitzuen gainerako koiuntura-indizearen urte-artereko aldakuntza-tasa. (%)
Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Uneko prezioak



Merkataritzaren salmenta-indizea %3,4 nominala jaitsi da 2013ko lehen hiruhilekoan; indizearen parte diren beste zerbitzuetan %6,7 jaitsi da 2012ko aldi beraren aldean.

Merkataritzaren barruan deigarria da Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketaren jaitsiera nominala, %8,4. Handizkako merkataritzan %0,9ko jaitsiera, eta Txikizkakoan %2,3koa.

Beste zerbitzuen sektore guztietan, tamaina ezberdinetako jaitsierak. Jaitsiera handienak Jarduera administratibo eta zerbitzu lagungarrietan, %10,8, Ostalaritzan, %10,4 eta Informazio eta komunikazioetan, %8,1. Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan, jaitsiera %5,4 da eta Garraio eta biltegiatzean %2,8.

Salmenta-indizearen jaitsierarik handiena, Bizkaian, %5,1; Araban %3,5 eta Gipuzkoan %1,7.

Termino errealetan, prezioen eragina kenduta, zerbitzuen sektorearen salmentak %6,5 jaitsi ziren lehen hiruhilekoan.

2012ko hiruhileko beraren aldean eta prezio finkoetan, Merkataritzaren salmenta-indizea %4,2 jaitsi da, eta beste zerbitzuena %9,0.

Merkataritzan urte artekoa negatiboa izan da sektore guztietan: Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa %8,9 jaitsi da. Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea %5,5 eta Handizkakoarena %2,3.

1. taula. Euskal AEko zerbitzuen gaineke koiuntura-indizea. Urte arteko eta hiruhile arteko aldakuntza-tasa. 1. hiruhilekoa. 2013(p)

	UNEKO PREZIOAK		PREZIO FINKOAK	
	t / t-4	t / t-1	t / t-4	t / t-1
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera				
Euskal AE	-3,8	-0,5	-6,5	-1,1
Araba	-3,5	0,3	-5,0	1,2
Bizkaia	-5,1	-0,4	-8,0	-1,8
Gipuzkoa	-1,7	-1,0	-4,4	-0,9
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera				
Merkataritza	-3,4	-0,6	-4,2	-0,7
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	-8,4	7,1	-8,9	9,3
Handizkako merkataritza	-0,9	-0,8	-2,3	-0,5
Txikizkako merkataritza	-2,3	0,4	-5,5	0,2
Bestelako zerbitzuak	-6,7	-1,5	-9,0	-1,5
Garraioa eta biltegiatzea	-2,8	-0,9	-6,9	-1,5
Ostalaritza	-10,4	-1,8	-13,0	-3,1
Informazioa eta komunikazioak	-8,1	-2,7	-10,0	-2,3
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	-5,4	-0,9	-6,6	-0,9
Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	-10,8	-3,0	-13,0	-3,3
ENPLEGU INDIZEA				
Euskal AE	-5,0	-0,7		

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak.

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko zerbitzuen gaineke koiuntura-indizea (ZGK)

Beste zerbitzuetan, euro finkoetan: bai Ostalaritzan, bai Jarduera administratibo eta laguntza-zerbitzuetan %13ko jaitsiera. Informazio eta komunikazioena %10,0 jaitsi da, Garraio eta bilketaren salmenta-indizea %6,9; Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoena %6,6.

Euskal AE osoan, 2012ko laugarren hiruhilekoaren aldean, zerbitzuen sektorean landunen kopurua %0,7 murriztu da 2013ko lehen hiruhilekoan.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Euskal AEko Zerbitzuen Koiunturako Indizea (ZKI). Prentsa-oharrak Interneten

Euskal AEko Zerbitzuen Koiunturako Indizea (ZKI). Datu-bankua